

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Astelehena, 2013ko otsailaren 11. IX. urtea. 2.543. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Euririk gabeko goizak kaleak txiki utzi zituen atzokoan. Irudian, San Frantzisko pasealekua jendez, konpartsez eta karrozez gainezka. I. URKIZU

HASI DA MOZORRO DESFILEA

Zaldunitarekin batera mozorroen jaialdia martxan jarri da Tolosako inauterietan; San Frantzisko pasealekua, besteak beste, pasabide koloretsu bilakatu da Asteartita bitarte

Konpartsa eta karrozen lekua aisialdi taldeek hartuko dute gaur goizean; hilabeteetan landu dituzten dantzak eskainiko dituzte herritarren aurrean ◉ 4-5

Inauterietako menu berezia

Elketa Jatetxea

32 €



Xabi Lopez > Inauterizalea

«Zaldunita eguna kuadrilla gabe ezingo nuke ulertu»

Eneritz Maiz

Xabi Lopezek (Ibarra, 1979) ez du hutsik egiten Tolosako inauterietan, eta asko disfrutatzen du. Egun berezienak hala ere, Ostegun Gizena eta Zaldunita dira berearentzat. Hala ere, onartu du aurtengoak ezberdinak izango direla semearen jaiotzagatik. Baina, hala ere, saiatuko da egunak aprobetxatu eta parrandaren bat egiten.

Nola bizitzen dituzu inauterien aurrekoasteak?

Ostegun Gizena iristeko gogo handiarekin, eta inauterietan hasteko ilusioarekin. Azken unean mozorroa prestatu beharrak eta izaten dira baina...

Zer dira zuretzat Tolosako inauterietak?

Zalantzarik gabe egun oso handiak dira niretzat. Egun alaiak eta disfrutatzeak. Lagun artean eta giro sanoan pasatzeko egunak dira.

Txarangazalea al zara?

Bai, txarangazalea naiz. Gainera, Tolosako inauterietan ezaugarrietako bat dira, eta ezinbestekoak dira kalean musika eta giroa jartzeko.

Denbora asko ematen al duzu mozorroa prestatzen?

Ez batzuk hasten diren bezain azkar, baina hilabete falta denerako hasten gara mozorroaz hizketan kuadrillan. Nahiko erraz hartzen ditugu erabakiak gainera, baten batek ideiarekin bat botatzen du eta horri tiraz borobiltzen dugu. Eta prestaketa lanekin hasteko garaia izaten da.

Mozorrotzen den hiru egunetan ateratzen zara?

Bai. Zaldunita egunean kuadrillakoen ateratzen naiz, eta ez nuke kuadrillan atera gabe eguna ulertuko. Urtero-urtero elkarrekin mozorrotzen gara. Beste bi egunetan nire erara edo bikotearekin ateratzen naiz, eta joko emango duen mozorroa aukera-

↓ Tragoxka batean

■ **Egunik onena.** Ostegun Gizena xarma berezia du, eta egun handia da, baina Zaldunita aukeratuko nuke.

■ **Inauterietako une bat.** Zaldunita goiza, San Frantzisko pasealekuan.

■ **Txaranga doinu bat.** Diana aukeratuko nuke.

■ **Eguna ala gaua.** Biak, baina egunez gehiago eta gaua ahal den neurrian. Baina hurrengo eguna ere aprobetsatu behar dela kontuan izanda.

tzen saiatzen naiz, baina ez naiz gehiegi ere saiatzen.

Zein mozorro gogoratu duzu?

Duela pare bat urte koadrilakoak Gay Bear moduan mozorrotu ginen: beltzez, bandera eta zartagailuekin. Oso oroitzapen onak ditut. Egurditik hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte oso ondo



Ezkerretik hasi eta lehena da, Xabi Lopez. HITZA

pasa genuen. Errepikatuko nuke mozorroa izan da.

Egunero ateratzen zara?

Egun handienetan bai, esaterako ostirala eta larunbata gehienetan atsedenerako erabili izan ditut.

Kanpotik etortzen direnek Tolosako inauterietan berdin bizitzen dituztela uste duzu?

Ez. Tolosarra izan behar dela uste dut, edota gutxienez ere eskualdekoa benetan barru barrutik bi-

zitzeko. Tolosarrek oso modu berezian bizitzen dituzte, eta oso barneratuta dituzte.

Nolako gorputza duzu Hausterre egunean? Zer pentsatzen duzu esnatzerakoan?

Uste dut, urtero aurreko urtean izandako gorputza baino okerrago izaten dudala [barreak]. Baina, hala ere, hurrengo urtean berdina egiten bukatzen dut. Merezki izan duelako izango da.



Tolosako Musika Bandak eman zion hasiera, atzo, Zaldunita egunari. ITZEA URKIZU

Txaranga alaiek egin dute tolosarren gozamina

Pijama, mozzorro, betaurreko nahiz txapelak jantzita, milaka tolosarrek goizean goiz hasi zuten, atzo, Dianan, Zaldunita eguna

Tolosako Musika Bandaren doinura, Alde Zaharrean barrena saltoka ibili ziren

ITZEA URKIZU Tolosa

Inauteritan ohetik jeikitzeke nagirik ez da izaten, eta hala erakutsi zuten, atzo, tolosarrek, Dianarekin kalera aterata.

08:00etan puntuan abiatu zen Tolosako Musika Banda, eta Dianaren doinura esnatu zituzten, Alde Zaharreko bizilagunak.

Plaza Zaharrean, Gorriti plazan, Berdura plazan nahiz Gaztelako arkuari egindako geldialditan, inauteri doinurik lasaienak eskaini zituen bandak, herritarren dantzarako.

Gainera, izan zen hotzari aurre egiteko erremediari proposatu zuenik ere, eta iazko moduan, salda beroa izan zuten Dianan saltoka ibili zirenek. Halaber, txokolatea eta gozoak ere eskaini zizkieten beste batzuek, inauterizale goztiarrenei.

Aurtengo inauterietan ia estrainezko, euririk egin ez izana es-

kertu zuten bertaratuek, baina aterki handiekin prestatutako mozzorroak ere ikusi ahal izan ziren.

Goizean goizetik, mozzorroan

Inauterietako egun handia izaten da Zaldunita, Ostegun Gizeneko eromenarekin batera.

Diana, gainera, tolosarren une kuttunenetakoa da, eta bertan plazaratzen dituzte, herriko inauterierien ezaugarri berezienak. Horrela, musika tresnekin, aterkiekin, Sardinaren hileta gogora ekarriz, oraindik ohean sartuta, kale garbitzailez nahiz aberatsez goiz hotza epeltzeko bide,

Behin salto eginda, gosaltzeko tartea hartu zuten gehienek, eta inauterietako hamaika tradizioetako bat jarraituz, txokolate beroa eta txurroak izan ziren, igandeko goiz hotza epeltzeko bide.

●tolosa@hitza.info



Haurrak, gurasoak, gazteak nahiz helduak elkartzen dira, tolosarrentzat hain berezia den Dianan. I. URKIZU



Euriaz babestu nahi izan zuten. I.U.




Goizean goiz jeikitzeak ez die umorerik kentzen inauterizaleei. I. URKIZU

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKARIAK

Etxeko lanak. Etxeko lanak eginez, edota haurrak zainduz lan egiteko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa ere badauka, gainera, lanera iristeko ere. Interesa duen edonork, dei dezala ondoren irakur daitezkeen telefono zenbakietara: 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



L. Urkizu - I. Terzaglio

Herburua barrea erregilea bada, guztiak balio du Zaldimutan, eta atokoan, Tolosako kaleetan, nabarmen frogatu zen hori. Ideia edo mozorro klasikoak ardatz hartuta ala aktualitateari keinu eginez, esportariko mozorroak eta parodiak izan ziren ikusgai. Euren lanaketarengatik alpa-men berezia merezi duten Espainiako erregeak ehizatu zuten Botswana okidantsoak edota zidiarraren arrano erraldoiak ikus-min handia sortu zuten. Baita Marilynen soinekoak, zaborraren bilbotaren parodiak, nahiz euren gorputza trastez beterik jarri zuten bikoteak ere. Kalea irten ziren onak mozorro, karroa eta kompartsen adibide dira.

Hauak ikustera, herria, urtero legez, jende ugari ger turatu zen, eta horretan asko lagundu zuten eguraldiak. Ostegun Gizenetik geratu gabeko egon ostean, atzo atzeri esan zuen Zaldimuta eta andorico, diama alai eta jendetsoak animatu zituen herritarrek festara. Eta eskatu bezala jeki zen jende obelisk, mozorro, eta kalera irten zen, inauteri goxo.

Gaurkoan, ere izango da zer ikusia Tolosako kaleetan. Karroak eta kompartsek aisialdi talde-etako gartetxoak pasako die lekuko, eta hauek azken asteetan prestatzen egon diren emanaldia jendaurrean aurkezteko unea izango dute.



Indiana eta arrano erraldoia, hondakin bilketarekin parodia eginez, animatzaileak, boxeolariak edota trasteak soinean zeramatzatzenak. IZTALDEKO



Marilynren soinekoa, 'Goenkale'-ren grabadoa, piratak eta Espainiako erregeak Afrikan ehizatutako elefantearekin eginko parodia, etzo San Frantzisko pasealekuan. IZTALDEKO





Txantxoan alaitasuna Txindokipean

Abaltzisketako txantxoak etxez etxe eskean aritu dira; gaur Amezketako talaia irtengo dira

Iñigo Terradillos Abaltzisketa

Ederki alaitu dute aurten ere txantxoek euren umorearekin Abaltzisketa. Urtero moduan, zortzi dantzari, bi mozorroz eta soinu joleaz osaturiko taldea abiatu zen atzo, goizean goiz, baserri baserri eskean aritzeko helburuarekin.

Orendainerako bidean dauden baserrietara joan ziren lehendabizi, eta haietan dantza saioak egin ostean, herriko plazara itzuli ziren. Han dantzatu, plazaren inguruko baserrietara joan, eta Larraitz aldean jarraitu zuten.

Umore onak lagundurik goiz polita igaro zuten txantxoek, eta eguna biribiltzeko mahaiaren bueltan bildu ziren denak. Baserri baserri eskainitako makil dantzen eskertza moduan jasotakoarekin jan edan ederria egin zuten.

Amezketan aldean ere makil dantzaren doinuak zabaldu ziren atzokoan, bertako talaia ere eskean aritu baitziren. Hauek, baina, bi eguneko inauteriak izaki, gaur ere irtengo dira dantzara, eta atzo bisitatu ez zituzten etxeetan izango dira.



■ **Bideoa.** Ikusi hemen, txantxoan makil dantzaren bideoa.



Goiz osoan zehar umore ona izan zen nagusi baserri baserri eskean aritu zen taldeko kideen artean. I.T.



Abaltzisketako ia baserri guztietan eskaini zuten makil dantza txantxoek, soinu jolearen doinuak lagunduta. I.T.



Abaltzisketako plazan dantza saioa eskani zuten unea. Herriko gaztetxoaren artean ikusmina piztu zuen emanaldia. I.T.

300 kilo gutxiago

Inaxio Perurenak 17,80 segundotan jaso du 300 kiloko harria, Leitzako Amazabal pilotalekuan, 300 lagun ingururen aurrean

Iñaki Perurena, Mieltxo Saralegi eta Gibitegiren marka berdindu du leitzarrak

Asier Imaz Leitzza

Inaxio Perurenak 300 kiloko harria jaso zuen atzo, Leitzako Amazabal pilotalekuan. 300 kilo jasotzearekin batera, 300 kilo kendu zituen gainetik, izan ere, aurreko bi saiakeretan ezin izan zuen harri bera bizkarrean berdindu. Hirugarrengoa bai, eta herritarren aurrean gainera.

Bost minutuko txanda zuen helburua lortzeko Inaxio Perurenak. Harriari heldu bezain pronto jarri zuen ordularia martxan epaileak, eta 17,80 segundo beranduago, bizkarrean zuen oreakaturik. Harria jaitsi ondoren, anaia pozez zorrotzen gainera jauzi zitzaien, baina epaileak hori ez egiteko esan zion, oraindik proba amaitzeko lau minutu gelditzen

zirela eta. Sinestu ezinik zegoen Inaxio Perurena, bere barruan kabitzen ez zela. Bero bero egin da, bigarren saiakera bat egitea pentsatu zuen, eta horretan geratu zen, saiakeran. Helburua, ordea, lortuta zegoen.

300 ikusle inguru elkartu ziren atzokoan Amazabalen, leitzarrak gehienak. Horiez gain, herri kirol munduko aurpegi ezagun ugari ikus zitekeen harmailetan, harri jasotzaileari babesa emanaz. Guztiek gogotik egin zuten txalo Perurenak harria jaso zuenean.

Bost minutuko txanda amaitzean, mikrofonoa hartu zuen eguneko protagonistak, ikusleengana zuzentzeko hitz hunkigarri hauekin: «Lehenik eta behin eskerrak denoi. Hemen zaudeten asko eta asko, nire entrenamendu



Hamazazpi segundotan jaso zuen 300 kiloko harria Inaxio Perurenak, atzo, Leitzako Amazabal pilotalekuan. A.I.

guztiak jarraitzen aritu zarete, eta animoak ematen. Aurreko ahalegin txarra egin zenean, ez da deus pasatzen, eta animoak eman zenizkidaten. Lehendabiziko saiakeran harria jaso dudanean ez nuen sinesten; eta bigarren aldiz altxatzen zuengatik saiatu naiz, baina burura aurreko saiakerak etorri zaizkit eta hor geratuta. Oraindik ez dut sinesten. Eskerririk asko, eta jakin ezazue de-

nok entrenatzen segiko dudala; beste paliza bat hartuko dudala, eta ea beste zerbait egiten dugun agudo xamar. Eskerririk asko».

Inaxio Perurenaren hitzei txalo zaparradarekin erantzun zien ikusleek. Atsedean hartzeko tarte handirik gabe, kazetariaren galderak erantzuten hasi zen Perurena. Jasoaldia berriro ikusteko aukera ere izan zuen, eta harria oker xamar jaso zuela esan zuen.

Leitzako Udalaren laguntzarekin, Saralegi anaiek antolatutako harri jasotzaile jaialdiak aurrera jarraitu zuen, Josetxo Urrutia leitzarra eta Joseba Esnaola berrobitarra bertan zirelarik.

Historiari dagokionez, 300 kiloko harria lau harri jasotzailek bakarrik jaso dute. Iñaki Perurenak 1987an, Mieltxo Saralegik 1991n, Gibitegik 1993an eta Inaxio Perurenak 2013an.

Ibarrak ezin izan dio iaz lortutako txapelari eutsi

540 kiloko txapelketaren bigarren jardunaldian, Ibarrak eta Badaiotzek berdinduta amaitu dute

A. Imaz Ibarra

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu zen herenegun

Durangon. 640 kilotan, Abadiño Ak mendean hartu zuen Ibarra, iazko txapeladuna. Abadiño A taldeak tiraldi guztiak irabazi zituen, nahiz eta gogotik lan egin behar izan zuten ibartarren aurkakoa, batez ere lehen tiraldian. Ibarrak Abadiño A-ren aurka galdu ondoren, tiraldi guztiak irabazi zituen.

540 kilokoan txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten Ibarrak, Badaiotzek eta Bizinda-

rrek. Lehen txanda Bizindarrek eta Badaiotzek jokatu zuten, eta gasteiztarrak gailendu ziren bi tiraldietan. Ondoren jokatu zuten Badaiotzek eta Ibarrak elkarren kontrako norgehiagoka. Lehen tiraldia Ibarrak irabazi zuen, baina bigarrena Badaiotzek; hortaz, bana berdindu zuten. Azken txanda Bizindarrek eta Ibarrak jokatu zuten, eta ibartarrak nagusitu ziren.

Bi jardunaldiren ondoren Iba-

rra eta Badaiotz berdindurik dauka sailkapen nagusia. Hirugarren jardunaldia erabakigarria izango da, eta otsailaren 16an jokatu da Ezpeletan, Merkatu plazan. 540 kiloko txapelketaren azken jardunaldiak bat egingo du 600 kiloko txapelketaren hasierarekin. Pisu honetan irabazlea nor den hiru jardunaldiren ondoren jakingo da. 640 kilokoan bezala, Ibarrak talde indartsua jarriko du goma gainean, 600 kilotan.

↓ Sailkapena

EUSKAL HERRIKO 640 KILOKO SOKATIRA TXAPELKETAREN FINALA

1. Abadiño A	15 puntu
2. Ibarra	12 puntu
3. Napurrak	9 puntu
4. Zuraide	6 puntu
5. Murueta	3 puntu
6. Berriozar	0 puntu

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Garraio publikoa

RENFE

■ **Brinkola-Irun (Tolosako ordutegia):**
Ohiko ordutegiaz gain, 23:18, 01:00, 02:00, 03:00, 03:50, 04:50, 05:00 eta 05:50. Trenak ez dira Apeaderon geldituko.

■ **Irun-Brinkola (Tolosako ordutegia):**
Ohiko ordutegiaz gain, 03:10 eta 05:10. Trenak ez dira Apeaderon geldituko.

TSST

■ **Eguneko zerbitzua. Zuzenekoak DONOSTIA-TOLOSA norabidean:**
07:45 (Amaratik aterako da), 09:00 (Amaratik aterako da), 13:10, 14:30 (Zubieta kalea), 18:30 eta 19:50.

■ **Gaueko zerbitzua.**
21:15, 21:30, 21:45, 22:15, 22:45. (Donostia-Lasarte-Andoain-Villabona-Irura-Tolosa)

■ **Eguneko zerbitzua. Zuzenak TOLOSA-DONOSTIA norabidean:**
07:10, 08:20, 09:30, 13:55, 15:00 eta 19:10.

■ **Gaueko zerbitzua.**
00:00etatik 06:00etara orduro. (Tolosa-Irura-Villabona-Andoain-Lasarte-Donostia).

TOLOSALDEA BUS

■ **00:00-02:00-03:30.**
TOLOSA (Zumardi Txiki)-Amarotz-Ikaztegieta-Alegia-Amezketa-TOLOSA.

■ **01:00-02:45-04:15.**
TOLOSA (Zumardi Txiki)-Amarotz-Ibarra-Berrobi-Eldua-Elduain-BERASTEGI.

HIRIBUSA

■ **07:30etik 10:00etara.**
Ibilbidea: SANTA KLARA-Foru etorbidea-Geltoki-Iurre-lurreamendi-Usabal-industrigunea-Amarotz-San Blas-Iparragirre-Zabalarreta-Kondeko aldapa-Klinika-SANTA KLARA.

■ **10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 22:00etara.**
Ibilbidea: ZUBI BERRIA-Usabal-industrialdea-Amarotz

(behera)-Kondeko aldapa-ZUBI BERRIA.

Agenda

TOLOSAKO INAUTERIAK

■ **09:00.** Txarangen irteera.
■ **11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Berazubi txarangak alaituta.
■ **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.

■ **16:00.** Kalejira, Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.

■ **16:30.** Zezenak zezen plazan; txarangak arituko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejiran aterako dira guztiak.

■ **18:00.** Txosnagunean kontzertua: Veneno Verde taldearekin.

■ **19:00.** Dantzaldia Berdua Plazan Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin.

■ **22:00.** Txosnagunean kontzertua: Zesuma taldearekin.
■ **23:30.** Boberenea txaranga ibiliko da kalez kale, giroa alaitzen.

■ **23:30.** Plaza Berrian Dj Jotatzeko izango da.

AMEZKETAKO INAUTERIAK

■ **08:00.** Plazan elkartuko dira, eta bi taldetan banatuta, bezperan pasa gabeko baserrietara eta Bedaio eta San Martin aldekoetara joango dira. Lehen taldea Ugartetik Iparretxiki baserriara joango da, eta bigarrena, berriz, Liola aldetik gerturatuko da Iparretxiki baserriara.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz Lete, I. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
■ **Betelu.** Carrilo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gora eta behera



BALKOIAK ERE INAUTERIEKIN BAT

Ez da zaila, ez da garestia, ez du denbora asko kentzen, eta herri osoa inauteri giroan sartzen dute. Tolosako balkoi asko eta asko egun hauetan koloretsu daude, tela, globo, konfeti eta abarrek. Inauteriek herriarentzat duten garrantzia nor-

beraren etxetik hasten dela erakusten dute inauteri balkoi koloretsuek. Kanpotik datorrenak ere zerbait bereziaren aurrean dagoela sumatzen du; ez bakarrik soinean daramana ohikoa ez delako, ingurua ere moztorturik duelako. LURKIZU

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Egin HITZAren HARPIDEDUN
otsailaren 1etik
martxoaren 31ra arte,
ETA JASO

EKAIN
sagardoa
6 botilako
kaxa bana



Harpidedun egiten diren guztien artean

Orduñako Aisia
hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu
baterako
egonaldia
ZOKATUKO
DUGU



Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

